


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

HONDARRIBIA 31



Egile eta data ezezagunak

(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena.


Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1948ko bi jasodura atzeraeman (pergola izan ezik, eta 1951ko teilatupe bat. Harlanduzko fatxada, aluminiozko begiratokia duena ezker aldeko alboko baoan. Konposizioari eta apaingarriari dagokienez, Hondarribia 27ren eta 29ren berdina da (hori dela eta, jatorrizko proiektua Luis Elizalderen izan daiteke, 1904 ingurukoa). Goi oinetara alboko 33 zenbakiko eskaileretatik eta ataritik sartzen da.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5., 6. eta 7. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira gainerako irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

HONDARRIBIA 33



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi 1948ko bi jasodura atzeraemanak (pergola izan ezik) eta 1951 baino geroagoko teilatupe bat. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan hormigoizko begiratoki kurbatua duena, Cortazarren 1923ko proiektuaren arabera. Alaka horretan aurrez zegoen zurezko begiratokia Urdaneta kalerako alboko muturreko baora eraman zen. Gaur egun Hondarribia 33ko ataria eta eskailerak kale bereko 31 zenbakiko goi oinetarako sarbide ere badira.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berriazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (5., 6. eta 7. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.